

## THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko deliberazio prozesua: 10. lan dokumentua

### KULTURA POLITIKO BERRIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

(2021eko martxoaren 31)

#### Sarrera

2021eko otsailaren 17an, lan metodologia eztabaidatu ondoren, maiatzera bitartean hausnarketa taldekideek ekarritako edukien gainean egitea adostu zen. Saio horietako lehena martxoaren 17an egin zen eta bertan kontzeptualizazio lanetan ari diren kideek erraztu zuten saioa.

Dinamikari begira, taldearen proposamena lehen lan dokumentuan azaldutako kultura politiko berriaren inguruko hausnarketara itzultzea izan zen, prozesuaren oinarrietatik abiatuz kontzeptualizazioan aurrerapauso bat emateko. Horretarako, lau gai landu ziren:

- a) Kultura politiko berriaren ezaugarriak
- b) Lankidetzazko gobernantza eta beste lankidetzak motak
- c) Zergatik lankidetzazko gobernantza?
- d) Deliberazio prozesuan diharduten lantaldeen arteko loturak

Ondorengo ataletan taldeek gai horien inguruan esandakoak jasotzen dira.

#### Kultura politiko berriaren ezaugarriak

Ezaugarriak zerrendatu aurretik, taldekide batek argitu zuen kultura politiko berriari bi dimentsio bereizten direla. Batetik, gure GIZARTEAN aldatzen/indartzen doan kultura politikoa, zeinak ezaugarri ezberdinak dituen aurreko kultura politikoarekin alderatuz, eta nagusiki individualismoaren eta kontsumo logikan oinarritzen dena. Bestetik, kultura politiko ASPIRAZIONALA, aldatzen ikusten duen mundu eta gizartearen aurrean, politika egiteko modu egokitu bat planteatzen duena, nolabait gizarte "berri" horri erantzuteko.

Kultura politiko berriaren ezaugarriak hauek direla esan zuen taldeak:

- a) Eduki politiko berriak.
- b) Erlazionatzeko modu berriak.
- c) Botere-harreman berriak.
- d) **Ezagutza berria garatzeko baldintzak.** Erronken eta aldaketen ulermenean sakondu behar dugu, agenda publikoa ondo interpretatzeko. Egungo testuinguruak eduki berriak jarri dizkigu mahai gainean. Herri batek jakintza behar du. Ezagutza maila partekatuko duen gizarte bat behar dugu eta oinarritzko ezagutza depositua komunitatean egon behar da.
- e) **Aldaketak barneratzeko eta balioak egokitzeko aukera.** Kohesio sistema komun bat eraiki behar da, balio berriak bereganatuko dituen gizarte bat behar dugu, konplexutasunean ondo egokituko dena.
- f) **Gizartean ze behar dauden gizartean entzuteko -benetako entzute bat egiteko aukera-**

- g) **Herritarren eta politikaren arteko lotura berriak.**
- h) **Herritarren parte hartzea bideratzeko bide eta tresna berriak.**
- i) **Egiteko modu berriak, harremantzeko sistema efektiboak sortuz** (erakunde – herritar, erakundeen arteko, ...). Arduradun politikoen eta herritarren arteko harremana sendotzeko aukerak sortu behar ditu eta erakunde publikoen barruan ere aldaketak barneratu.
- j) **Lan-sareetan oinarritutakoa** izatea, hierarkietatik “zikloen” moduko kontzeptuetara pasaz.
- k) **Tresna izatea Euskal Herriaren zerbitzura** – gurean bereziki inportantea gizarte antolatua da lankidetzazko gobernantzan. Herri biziraupenerako behar dugu lankidetzazko gobernantza, komunitategintzatik identitate, euskara, nortasun propioarekin irauteko.
- l) **Eraginkorra** izatea – dauzkagun indarrak bilduz.
- m) **Lankidetzazkoa** izatea – indar sozial eta instituzionalak helburu komunentz zerbitzura jarritz.
- n) **Demokratikoa** – demokrazian sakontzeko bide berriak eman behar ditu. Deliberazio demokratikoa behar da eragile ezberdinak prozesuan sinesteko, konfrontazioa utzita.
- o) **Ikuspegi sistemikoa.** Kultura politiko berriak gaur egun aurrean ditugun erronka handiei eman behar zaizkien erantzunen baitan garatu behar duelako.
- p) Politikaren **legitimazioari buruz** uneoro pentsatzen duena.
- q) **Ezagutza zientifiko-teknikoaren inguruko dependentzia hain handia ez duena.**
- r) **Berrikuntza eta kohesioa** ekartzea herritar eta politikaren inplikazioari dagokionean.
- s) **Erronka ekonomiko, politiko, sozialen baitan** garatuko dena haiei erantzunez.
- t) **Giza talde berrietan** sortzen dena, haiek sortzen baitituzte kultura politiko berriak.
- u) Aurrekoak baino irekiagoa.
- v) Maximalismo gabekoa.
- w) Lagun-etsai dikotomia gabekoa.
- x) Idealismo ez eraginkorretatik aldentzen dena.
- y) Herritar kritikoak.
- z) **Agenda politiko berriarekin** lotura, erronka berriak, emergenteak jasotzeko
- aa) **Herritarren beharrei erantzuteko** prestutasuna baliabideak erantzukizunez erabiliz eta emaitzetara zuzendutako kudeaketa ahalbidetuz.
- bb) **Kudeaketa ona** herritarrek gizartearen arazoak propio sentituz eta erantzunetan inplikatzuz.

## Lankidetzazko gobernantza eta beste lankidetzazko motak

Bestalde, lankidetzazko gobernantzaren eta beste lankidetzazko moten arteko desberdintasunen inguruan galdeturik, honela erantzun zuten taldeak:

- a) Lankidetzazko gobernantzaren eta beste modu batzuen arteko desberdintasunak:
  - a. **Lankidetzazko gobernantzak** ondorengoak eskatzen du: etengabeko ikaskuntzako dinamika irekia eta aktiboa izatea (jakintza sortzea ahalbidetzen du); eragileen arteko harreman horizontalak, ez hierarkikoak garatzea; agenda publikoa/politikoa gizartearena da eta gobernuaren eta eragile sarearen lankidetzaren bitartez ezartzen dira agendako lehentasunak; gobernantza partekatua izatea. Deliberazioak parekoa izan behar du interes talde guztientzat (parekotasun horrek bermatzen duelako jendeak benetan sinestea deliberazio horretan).

- b. **Beste elkarlan motak** eman daitezke adostutako hierarkia batekin; edo elkarlana ahalbidetu daiteke baina agendak gobernuarena soilik izaten jarraitzen duen bitartean, eta berak ezartzen ditu lehentasunak. Edo beste elkarlan mota batek ez du jakintza sortzea helburuen artean zertan izan.
- b) Lankidetzazko gobernantzak aktore pribatu eta zibilei erabaki politikoen erantzukizuna luzatzen die, politika publikoen prozesuetan sartuz. Ez da ordezkartza demokratikoaren hobekuntza bat, beste lankidetzazko mota batzuk, hala izan daitezke.
- c) “Lankidetzazko gobernantza” kontzeptuaren bi hitzek “tranpa” txiki bat planteatzen dute. Lankidetzazko egiten den prozesu orotan gobernantza bat egon arren de facto, ez baitu zertan horrek lankidetzazko gobernantza izan behar. Eta hori horrela izanik, mota ezberdinetako eragileak elkartzen direnean, askotxotan, “lankidetzazko gobernantza” kontzeptua erabiltzen dela esango nuke, “elkarlana” edo “lankidetzazko” erabili beharrean.
- d) “Lankidetzazko gobernantza”, elkarlana ez ezik beste hainbat elementu partekatzen dira. Hasteko eta behin, prozesu logikan egiteko moduez ari gara, zeinetan helburuak, ardurak, erabakiak, finantziarioak, etab. partekatzen diren, garatzen doan konfiantzaren lokailuaren bitartez. Baina inolaz ere, lankidetzazko gobernantza ezin daiteke oinarritu, elkarrekin eraikitze beharrezkoa diren elementu horiek guztiak partekatzen ez direnean, baizik eta horietako batzuk bakarrik partekatzen direnean.
- e) Lankidetzazko gobernantza ez da soilik elkarrekin lan egitea, baizik eta elkarrekin arazoak eta egitasmoak definitzen dira, konpartitzen dira, erabakiak errealitate bakoitzera egokitzen dira eta arindu. Estrategia partekatzea eskatzen du, ez koordinazioa. Ez da kolaborazioa, ko-sortzea da.

## **Zergatik lankidetzazko gobernantza?**

Kultura politiko berria garatu nahi bada, lankidetzazko gobernantza zergatik den egokia galdetzean, taldearen erantzunak hauek izan ziren:

- a) Besteak motz gelditzen direlako jartzen ditugun helburuetarako.
- b) Harremantzeko modu berri honek ahalbidetuko digulako, ezagutza, balio eta jarrera berriak barneratzea, eta jokabidea – egiteko modu berriak geureganatzea ere.
- c) Elkarren arteko harremana berreskuratzeko bide bat izan beharko litzatekeelako (galdutako konfiantza hori berreskuratzeko).
- d) Epe motzean, gizarte anitzen konplexutasunari aurre egiteko eta emaitza politiko partekatuak lortzeko bide sendoa delako. Ez da perfektua eta epe ertainean izan dezakeen bilakaera zalantzazkoa dirudi, baina gaur egungo gizarteetako kohesioa sendotzeko oinarri aproposak eraikitze balio dezake.
- e) Aldi berean bermatu dezakeelako, kultura politiko berri aspirazionalaren eta gizartean nagusitzen ari den kultura politiko berriaren arteko lotura oinarri demokratikoak sendotuz egitea, eta modu eraginkor eta legitimoan egitea. Alegia, oinarri demokratikoak sendoak dituelako planteamendutik bertatik (zintzoa bada), eta gainera, prozesuan errealitate konplexuari erantzuteko eta gizartearen izaera politiko-publikoa indartzeko bidea delako.
- f) Definitu ditugun ezaugarriak lankidetzazko gobernantzak betetzen dituelako eta ez beste aukera batek.
- g) Aniztasunak ezagutza eta jakintza berriak inkorporatzen dituelako eta parte-hartzea sustatuz egitasmoekiko atxikimendua sortzen delako.
- h) Kultura politiko berria vs kultura zaharra, harresiek eta konfrontazioak historikoki nora garamatzaten argi dugulako eta hori gairitu nahi dugulako.

Aurrekoen inguruko arriskua, kezka, kontraesana: lankidetzaz horri behar den denbora eskaini behar zaio, gaur egun ohituta gauden ereduaren denbora preziatua da, nahiz eta gero bukaerako emaitzak balio izan (berme demokratiko gehiago).

## **Deliberazio prozesuan diharduten lantaldeen arteko loturak**

Amaitzeko, lantalde bakoitzari ondorengoa galdetu zitzaion: **zertan, nola eta zergatik** egingo diozue zuen lantaldetik **ekarpena** kultura politiko berriari buruzko egitasmoari? Hau erantzuterakoan, lantalde bakoitzak bere ekarpena zein izango den eta teorizazioan diharduen taldearengandik zer espero duen aipatu zuen.

### *Kontzeptualizazioan diharduen taldea*

- Gainontzeko taldeei egingo dien ekarpena: marko teoriko kontzeptuala ezartzea, eta horrekin oinarriak jarri talde osoaren lanari koherentzia eta sendotasuna emateko.
- Gainontzeko taldeei hau eskatzen die: gure lanketa teorikorako, kontzeptua ulertzeko eta erabiltzeko modu ezberdinak jasotzea, eta horiekin dialogoan eta kontrastean, gurea (eta beraz talde osoarena) osatzea.

### *Herritarren eta gizarte antolatuaeren inplikazioa lantzen duen taldea*

- Gainontzeko taldeei egingo dien ekarpena:
  - 2 esperimentu edo proiektu ezberdin:
    - i. Herritarren inplikazioarekin zuzenean zerikusia duena.
    - ii. Gizarte-eragile / Erakunde-arteko gobernantza eredu berriak: Badalab laborategia sortzeko.
  - Jakintza esperientziala esplizitatuko dugu, eta honen atzetik dagoen markoa azalatu, gauzak egiteko moduan dauden logikak deskubritzea da asmoa nolabait. Ikaskuntzarako esperientziak izan behar dira guk hemen jorratuko ditugun proiektuak.

Hauen bidezko ekarpena:

Herritarra agenda publikora eramateko demokrazia deliberatiboko prozesua bultzatu nahi dugu, partaidetza prozesuen enfoke berriak diseinatu eta martxan jarri, hain zuzen ere agenda publikoan herritarren inplikazioa eta parte-hartzea sustatzeko eta areagotzeko. Eta hori tresna eta bide/enfoke berriak erabiliz. Bestalde, erakunde publikoen eta gizarte eragileen arteko gobernantza eredu berriak esploratu eta haiekin esperimentatu nahi dugu, parte-hartzea eta adostasuna bultzatuz. Entzuteko, hausnarketarako eta esperimentaziorako espazioak ere bultzatzen ditugu eta ezagutza berriarekin konektatu nahi dugu, garapen komunitarioko tresna eta enfoke berriak inkorporatuz. Azkenik, gizartean dauden premia errealekin konektatuko dugu, ekintza zehatzekin eta gure gizartean dauden proiektuekin (hau ez dadin txosten batean edo marko teorikon bakarrik gelditu).

- Zer espero du talde honek kontzeptualizazioan ari den taldearengandik?
  - Marko orokorra, bertan kontzeptu garrantzitsua lankidetzazko gobernantza da.
  - Hori praktikara eramanda esperimentaziotik aterako ditugun ikasketak jasotzea.
  - Lokalizatu gobernantzaren diskurtsoa gure errealitatera – gure lankidetzaz publiko-sozialean badaudelako esperientziak.
  - Ulerkorra den lankidetzazko gobernantzaren definizio bat – herritarrengana heldu nahi badugu, eta herritargo aktibo bat sustatzeko.

- Konplexutasunaren lanketa. Erronka konplexuen ideian zentratu nahi dugu abiapuntuan, bere zentzu eta inplikazioetan, eta nola horrek gobernantza ereduak birpentsatzeko premia azaleratzen duen. Beraz, konplexutasunaren kontzeptualizazio edo oinarri teoriko batzuk beharko ditugu. Oinarri horrek lagunduko digu baita ere prozesuan kontutan hartu beharreko elementuak eta galderak planteatzen.
- Gobernantza partekatuta praktikara eramateko ausartak izan (mugaraino eraman) nahi dugu – eta horretarako babes teorikoa inportantea da.

### *Lanketa metodologikoan ari den taldea*

- Gainontzeko taldeei egingo dien ekarpena:
  - Dimentsio metodologikoa landuko du kultura politiko berria lantzeko orduan, besteak beste deliberazio talde hau praktika komunitate moduan nola garatu daitekeen landuko du eta horrek taldearen egonkortasunari eta eraginkortasunari eragin dakioket eraldaketa lantzeko orduan.
  - Ekarpen metodologikoa. Ezagutzaren sorreraren eta boterearen arteko harremanari erreparatzea. Horrek mahai gainean jartzen du boterea egikaritzeko modu berri honek, lankidetzazko gobernantzak, berarekin dakarrela jakintza sortzea eta partekatzea prozesu sozial moduan.
  - Gramatika bat eskaini dezakegu. Nola? Teorizazioak isla izateko kasuak aztertzea interesgarria izango litzateke, Espainian eta, batez ere, Europako beste toki batzuetan.
  - Egitura nahiko finkatuta dago: bi talde ekintzara bideratuta daude, eta teorizaziotik hitz gakoak emango dizkigute eta guk MUGIMENDUA EMAN BEHAR DIEGU.
  - Nazioarteko arrakasta historikoak ekarri, datu base bat sortuz eta haietatik ikasteko aukerak sortuz.
- Zer espero du talde honek kontzeptualizazioan ari den taldearengandik?
  - Teorizazioan eta kontzeptualizazioan emantzat ditugun kontzeptu eta markoak kuestionatzen laguntzea da, gaur egun ditugun ikuspegiak gainditu eta taldean, haratago joan ahal izateko.
  - Taldeak erabiliko duen teorizazioa, kontzeptualizazioa eginkorra izatea, hau da, eraldaketa prozesuan bertan sortzea jakintza, modu linealean aurrena pentsatu eta gero inplementatzen saiatu gabe.
  - Esperientziatik, ezagutza partekatua sortzea. Horrek lankidetzazko ikaskuntza ahalbidetzen du. Hori zein baldintzatan da posible?
  - Sarri erabiltzen ditugun kontzeptuak finkatzen laguntzea eta hori egiten duten heinean, partekatzen dugun proiektua zein den argitzea. Komunitate bat bagara, batzen gaituen enpresa komuna zein den ulertzea eta gure hausnarketa zein helbururi begira dagoen finkatzen laguntzea.

### *Administrazioaren eraldaketan ari den taldea*

- Gainontzeko taldeei egingo dien ekarpena:
  - Tresna bat inposatu ordeztu, ezagutarazi, egokitu eta modu mailakatuan ezarriko dugu eta honek lan egiteko modu berrietan sakontzeko balioko digu. Transbertsalki, hobeto lan egiten ikasiko dugu.

- Etxearen kultura, egiteko moduak, baloreak aldatzen lagunduko dugun heinean lankidetzazko gobernantza gorpuzten eta indartzen lagunduko dugu, egunerokotasunean.
- Inertziatik atera eta deskonfiantza dagoen eremu batean beste begirada bat jartzen saiatuko gara. Nola? Jerarkiak dakarren harrokeriatik haratago hau dialogo aktibo bihurtzen ari gara. Zergatik? Prozesu hauek eraginkorrago izateko, erakargarri egin nahi ditugu, Aldundiko bezeroak guregana etortzeko.
- Zer espero du talde honek kontzeptualizazioan ari den taldearengandik?
  - Transformaziorako behararen inguruan gogoeta egin eta arrazoitu. Konturatu dira behar hori dagoela, guk praktikara pasa ahal izateko.
  - Teorizazioa aplikatzen lagundu. Teorizatu gabe ez ginen jabetuko transformazioaren beharraz ere.
  - Lankidetzazko gobernantzan klabea da fasilizazioaren rola. Hau prozesuan nola aplikatu behar dugun ulertzen lagundu